

**LANEKOAK EZ DIREN PRAKTIKAK EGITEKO HITZARMENA, ENPRESETAN LANEKOAK EZ
DIREN PRAKTIKAK ARAUTZEN DITUEN URRIAREN 31KO 1543/2011 ERREGE DEKRETUAREN
ARABERA**

Iruñean, (e)ko aren (e)(a)n

Alde batetik, Eva Ontoria del Cura andrea, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko Enplegua Sustatzeko eta Enpresentzako Zerbitzuetarako Zerbitzuko zuzendaria den aldetik, erakunde horretako zuzendari kudeatzailearen abenduaren 30eko 2753/2015 Ebazpenaren bidez ekitaldi honetarako baimena duena.

Eta, beste aldetik, jauna/andrea, enpresaren izenean (IFK:), (e)ko notario jaunaren/andrearen aurrean (protokolo zk.:) (e)(a)n egindako eskritura publikoan emandako ahalordearen arabera (ahalorde hori erakutsi du ekitaldi honetan).

ADIERAZI DUTE

LEHENA. Elkarri aitortzen diote dokumentu hau negoziatu eta sinatzeko gaitasuna eta legitimazioa dituztela.

BIGARRENA. Hitzarmen honen xedea da enpresan laneakoak ez diren praktikak egitea erraztea, hitzarmen honetan jasotako klausulen arabera.

HITZARTU DUTE

Lantokietan laneakoak ez diren praktikak egiteko lankidetzaz hitzarmen hau sinatzea, enpresetan laneakoak ez diren praktikak arautzen dituen urriaren 31ko 1543/2011 Errege Dekretuan, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren gomendioetan, hitzarmenean ezarritako klausuletan eta aplikatzekoak diren arau guztietan ezarritakoarekin bat etorritz.

Horregatik guztiagatik, honako hitzarmen hau sinatu dute honako klausula hauekin:

KLAUSULAK

LEHENA. Kontratu honen xedea da lan-esperientziarik ez izateagatik enplegarritasun-arazoak dituzten gazteek enpresetan egiten dituzten praktikak, lanekoak ez direnak, arautzea.

BIGARRENA. Gazte horiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- 18 eta 25 urte bitartekoak izatea, biak barne. Gazte Bermearen Sistema Nazionalean inskribatutako gazteei dagokienez, lanekoak ez diren praktikak egiteko gehieneko adina sistema horren onuradunentzat ezarritakoa izanen da, Hazkuntza, lehiakortasuna eta eraginkortasuna sustatzeko urgentziazko neurriak onesten dituen urriaren 15eko 18/2014 Legean ezarritakoaren arabera.
- Langabezian egotea eta enplegu-agentzian izena emanda egotea.
- Unibertsitate titulua edo erdi mailako edo goi mailako Lanbide Heziketako titulua izatea, edo arte- edo kirol-irakaskuntzetako goi mailako titulua, edo profesionaltasun ziurtagiria.
- Jarduera berean hiru hilabetetik gorako lan-harremanik edo bestelako lanbide-esperientziarik ez izatea. Ondorio horietarako, ez dira kontuan hartuko tituluak edo ziurtagiriak lortzeko curriculumetan sartzen diren praktikak.

HIRUGARRENA. Lanekoak ez diren praktikak enpresak Nafarroan duen/dituen lantokian/lantokietan eginen dira, tutore batek zuzendu eta gainbegiratuta, eta hiru eta bederatzi hilabete bitarteko iraupena izanen dute. Enpresak Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuari aurkeztutako lanekoak ez diren praktiken programaren arabera gauzatuko dira. Programa horretan, gutxienez, honako hauek jasoko dira: praktiken edukia eta haiekin batera emanen den prestakuntza, praktiken iraupena, eta ebaluazio sistemak eta tutoretzak.

LAUGARRENA. Lanekoak ez diren praktikak eginen dituzten gazteen eta enpresaren arteko harremana ez da inola ere lanekoa izanen.

Hala ere, lanekoak ez diren praktiketan parte hartzen duten pertsonen urriaren 24ko 1493/2011 Errege Dekretuan Gizarte Segurantzaz sartzeko jasotako mekanismoak aplikatuko zaizkie (1493/2011 Errege Dekretua, urriaren 24koa, prestakuntza programetan parte hartzen duten pertsonak Gizarte Segurantzako araubide orokorrean sartzeko baldintzak arautzen dituena).

BOSGARRENA. Enpresak ez badu hautagairik aurkezten lanekoak ez diren praktiken programa(k) gauzatzeko, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak hautagaiak aurrez hautatzeko prozesua gauzatuko du, eta enpresak eginen du hautagaien azken hautaketa prozesua.

Enpresak lanekoak ez diren praktiken programa(k) gauzatzeko hautagaia aurkezten badu, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak haren egokitasuna baloratuko du.

SEIGARRENA. Enpresetan lanekoak ez diren praktikak arautzen dituen urriaren 31ko 1543/2011 Errege Dekretuaren 3.4 artikulua aplikatuz, parte hartzen duten gazteek laguntza beka bat jasoko dute enpresaren eskutik. Beka horren zenbatekoa, gutxienez, une bakoitzean indarrean dagoen hileko OAEAPren ehuneko 80 izanen da.

ZAZPIGARRENA. Enpresak hitzarmen bat sinatuko du lanekoak ez diren praktikak eginen dituen gaztearekin. Hitzarmen horretan, gutxienez, honako hauek zehaztuko dira: garatu beharreko praktiken eduki zehatza, iraupena, lanaldiak eta ordutegiak, lantokia(k), tutoretza sistema zehaztea eta praktikak egiteagatik gazteak lortuko duen ziurtagiria.

Enpresak lanekoak ez diren praktikak egiten dituzten pertsonen berri emanen die langileen legezko ordezkariari, halakorik balego. Era berean, sinatutako hitzarmenen berri emanen dio enpresak Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuari.

ZORTZIGARRENA. Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak edozein unetan baloratu eta gainbegiratu ditu praktikak, horretarako izendatutako langileen bidez, ezarritako baldintzak eta neurri honen helburuak betetzen direla egiaztatzeko.

Nolanahi ere, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzua edozein unetan agertzen ahalko da lanekoak ez diren praktikak egiten diren lantokian, horien kontrola eta jarraipena egiteko.

BEDERATZIGARRENA. Lanekoak ez diren praktikak amaitutzat jotzen ahalko dira hitzartutako iraupena baino lehen, enpresak edo onuradunak atzera egiteagatik, arrazoi justifikatua egoteagatik edo bi alderdiek sinatutako hitzarmenean jasotako betebeharretakoa bat edo batzuk ez betetzeagatik. Horretarako, enpresak Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuari jakinarazi beharko dio, erabakiaren arrazoiak edo arrazoiak adierazita.

Era berean, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak edozein unetan amaitzen ahalko ditu lanekoak ez diren praktikak, baldin eta irizten badio enpresa edo onuraduna ez dela ari bere betebeharretakoa bat betetzen, eta beretzat gordetzen du enpresa edo onuradun horrekin lanekoak ez diren praktikak berriro ez tramitatzeko eskubidea.

HAMARGARRENA. Enpresak egiaztatu beharko du, praktikak hasten diren unean, parte-hartzaileak hitzarmen honen bigarren klausulan ezarritako baldintzak betetzen dituela, eta Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuari jakinarazi beharko dio lanekoak ez diren praktikak hasi dituela, 3 egun balioduneko epean, praktikak hasten diren egunetik zenbatzen hasita.

HAMAIKAGARRENA. Lanekoak ez diren praktikei buruzko hitzarmenen inguruan gertatzen den edozein gorabeheraren berri emanen du enpresak, baita horien edukian gertatzen den edozein aldaketaren berri ere.

HAMABIGARRENA. Lanekoak ez diren praktikak amaitutakoan, enpresak, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin lankidetzan, ziurtagiri bat emanen dio praktikak egin dituen pertsonari, gutxienez honako hauek jasoko dituenak: egindako praktikak, praktikei lotutako prestakuntza edukiak, iraupena eta praktikaldia.

Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak beharrezko neurriak hartuko ditu ziurtagiri horiek Enplegu Zerbitzu Publikoen Informazio Sistemari jasota gera daitezen.

HAMAHIRUGARRENA. Lanekoak ez diren praktiken programan parte hartu duten edo parte hartzen duten gazteak kontratatzen ahalko ditu enpresak, praktikak amaitutakoan edo horiek egiten ari diren bitartean, edozein kontratazio modalitatetan, une horretan indarrean dagoen lan-araudiaren arabera. Bestela, gazteak bazkide gisa sartzen ahalko dira, praktikak kooperatiba edo lan sozietateetan egin badira.

Gazteekin egiten diren lan-kontratuak, gazteek lanekoak ez diren praktiken programan parte hartu ondoren sinatzen badira, kontratazioaren unean indarrean dagoen legerian kontratazioaren arloan dauden pizgarriak baliatzen ahalko dituzte, aplikatzekoa den araudiaren arabera betiere.

HAMALAU GARRENA. Hitzarmena indarrean egon da sinatzen den egunetik aurrera, eta lau urteko epea izanen du.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako epea amaitu aurreko edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek hitzarmena beste lau urtez luzatzea erabakitzen ahalko dute.

HAMABOS GARRENA. Hitzarmen hau ezeztatzeko arrazoiak dira:

- a) Hitzarmenaren indarraldia amaitzea haren luzapena erabaki gabe.
- b) Sinatzaile guztiak ezerezteko ados jartzea.
- c) Sinatzaile batek bere betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea.
- d) Epaile batek hitzarmena deuseza dela deklaratzeko.
- e) Aurreko horietatik desberdina den eta hitzarmenaren edo legeetan ezarritako beste edozein.

HAMASEI GARRENA. Alderdiak sor daitezkeen auzi edo eztabaidak ebartziko dituzte, eta, ebazti ezean, dagozkion errekurtsoak aurkeztu ahalko dira.

Enpresaren izenean	Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren izenean
Stua.:	Stua.: